

# Nafarroako erlijio-erainiken jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat

Roldán Jimeno Aranguren  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa - UEUkidea

Nafarroako erlijio-eraikinen jabetza ikuspegi historiko-juridikotik jorratzen da. Zuzenbidearen historiatik lau dira ondare honen jabetzaren inguruan argitu behar diren kontuak: patronatuaren izaera eta jabetza (ezin dira nahasi *Patronatua* —Zuzenbide Kanonikoak arautzen duena— eta Jabetza), eraikinen tipologiak (katedralak, eliza parrokialak, monasterio eta komentuak, kofradien egoitzak, ermitak...), Estatu liberalako desamortizazioa eta frankismoaren legedia. Ondorio bezala, Zuzenbide positibotik hausnarketa iushistoriko bat egiten da.

GAKO-HITZAK: Eliza Katolikoa · Jabetza · Zuzenbide kanonikoa · Desamortizazioa.

In this article we explain the religious buildings' ownership in its legal historic aspect. From history of law's point of view, we must explain four subjects about this ownership: patronage and ownership (we must not confuse Patronage and Ownership), different types of buildings (cathedrals, parish churches, monastery and convents, konfraternity's headquarters, ermitages...), liberal state's disentailment and Franco's time laws. In fact, we do an iushistoric reflexion from a positive law's point of view.

KEY WORDS: Catholic Church · Ownership (Property) · Canonical law · Disentailment.

*Jasotze-data:* 2009-04-03. *Onartze-data:* 2009-06-15.

Nafarroako erlijio-eraikinen jabetzaren gaira hurbiltzen garenean, bi maila ezberdinek elkar jotzen dute: juridikoak eta etikoak. Lehenengo mailan arituko naiz, Zuzenbidearen historiatik kontuan hartu behar diren gakoeierreparatuz. Gaia mamitsua da, eta eztabaidea honetan egon badira inskribatutako ondare konplexu batzuk ikerketa monografiko bat beharko luketenak: baratze, eskola, larre, hilerri, eskola eta antzeko ondasunak, zein ondasun higigarriak direnak. Aipamen txiki batzuk izan ezik, ez diet hauei erreparatuko, eta erlijio-eraikinen jabetzara mugatuko naiz. Zuzenbidearen historiatik lau dira ika-mika honetan argitu behar diren kontuak: patronatuaren izaera eta jabetza, eraikinen tipologiak, desamortizazioa eta frankismoaren legedia. Bosgarren gai bat legoke, finken immatrikulazioaren legediaren historia, baina jardunaldi hauetan esparru hori Mikel Karrerak jorratu du. Ondorio bezala, Zuzenbide positibotik abiatuta, hausnarketa batzuekin bukatuko dut.

### **1. Ezin dira nahasi *Patronatua* —Zuzenbide Kanonikoak arautzen duena— eta *Jabetza***

Juridikoki bi gauza ezberdin badira ere, eztabaidea honetan askotan nahasi dira *Patronatua* —Zuzenbide Kanonikoak arautzen duena— eta *Jabetza*.

Norena da patronatu-eskubidea? Zuzenbide Kanoniko historikoak eta positiboak garbi uzten du: elizak fundatu edo hornitu dituztenena, alegia, patronoak eskubide horien *edukitzaleak* dira, inoiz ere *jabeak*. Patronoaren eskubide garrantzitsuenak «aurkezpenarena», ohorezko lehentasuna eta zergak biltzearena dira baina, Zuzenbide Kanonikoaren arabera, fundatzaleak ezin du jabetza-eskubide bat erreklamatu. Era berean, patronatu baten fundazioak ez du esan nahi Elizak fundatzai-learekiko obligazioak hartzen dituenik. Mendeak pasatu ahala, Elizak fundatzai-learekiko obligazioak izango da, eta ondasunak patrimonialak direnean laikala. Zentzu horretan, berdin dio fundatzaila elizgizona edo laikoa den. Patronatu mistoa ere existitzen da (Cavallario, 1860: 121-135; Golmayo, 1859: 232-259)<sup>1</sup>.

Nafarroako historian anitz dira patronatukoak diren elizak: nobleenak eta, gure eztabaideri dagokionez, udal-patronatukoak. Azken horien artean adibideak ugari ditugu, askotan Elizaren eta udalen arteko liskar garratzak eragin zituztenak. Nafarroako Elizbarrutiaren Artxiboa ehunka prozesu aurkitzen dira, eta udal zein parrokietako artxiboetan ere informazio interesgarria topatuko dugu. Zentzu horretan, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma egiten ari den ikerketa-lana azpimarratuko nuke. Kasuz kasu aztertu beharko genuke, baina, oro har, patronatuarekiko eztabaidea esparru etiko batean koka dezakegula bakarrik ondoriozta dezakegu, patronoek patronatuaren jabetzarik ez dutelako.

---

1. Ikus, Euskal Herriari dagokionez, Jimeno Aranguren, R. (2006): “Clero secular y regular en la historia de Vasconia”, *Iura Vasconiae*, 3, 85-158.

## 2. Eraikinen tipologiak aztertu behar dira

Ezin dira katedralak, eliza parroklialak, ermitak, komentuak, monasterioak, kofradien egoitzak... zaku berean sartu. **Kofradia** baten egoitza, normalean, nortasun juridikoa duen erakunde horrena izango da, kofradia horrena, alegia. Nafarroan adibide ugari ditugu; nik, Ostiako San Gregorioren ikertu nuen; adibidea argigarria iruditzen zait: 1075. urtean Peñalengo Antso Gartzes IV.ak *Piñalbako San Salvador* monasterioa Naiarako Santa Mariari eman zion —aurrerago azalduko dugun beneditinizazioaren prozesuan—. Erdi Aroan monasterio txiki hura Naiarako monasterioaren jabetza izan zen, baita XIII. mendetik aurrera ere, San Gregorioren gurtza sortu zenean eta bere kultua suspertzeko kofradia bat sortu zenean. San Gregorioren gurtza gero eta garrantzitsuagoa izan zen, eta XVI. mendearen penintsulako santutegirik garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Monasterio txikia desagertu eta kofradiak kudeatutako santutegi bat izan zen. Jabetza, ordea, Naiararena izan zen XVII. mende arte, eta kofradiakoek, urtero, Errioxako monasterioari zergak ordaindu behar zizkioten. Mende horretan jabetza kofradiara pasatu zen, gaur egun arte, ondasun haien desamortizaziotik kanpo gelditu baitziren (Jimeno Aranguren, 2005).

**Monasterio eta komentuen jabetzari dagokionez**, gauza ezberdinak gerta daitezke, desamortizazioan —aurrerago jorratuko duguna— eta ondoren izan zuten historiaren arabera, baina, oro har, eta salbuespenak salbu, fraide edo monjen komunitate baten esku baldin badago, jabetza hori erlijio-ordena horren izenean egongo dela suposatu behar dugu. Gauza bera gertatzen da *Opus Deiren* pertsona-prelatutzarekin.

Erlificio-tokien jabetzen inguruko eztabaidean Erdi Arotik hona Elizarenak diren bieraikin mota aipatzen ahal ditugu: **Katedralak** —elizbarruti bakoitzaren izaera juridikoa sinbolizatzen duen tenplua— eta **eliza parroklialak**. Parrokien jabetzaren auzia ulertzeko hauen sorrera jakin behar dugu, eta nola parroquia gehienak lehenago berezko elizak izan ziren. Berezko elizak eta berezko monasterioak beren jabeek (laikoak nahiz elizgizonak) sortu eta ornitu zituztenak izan ziren. Fundatzailearen finka partikularretan egiten ziren. Jabetza horrek eskubide patrimonial batzuk zituen: izendapena (*ius praestandi*), elizgizon eta bestelako zerbitzariei ordaindu, elizak jasotzen zituen zergak jaso, eta abar. Nafarroan, berezko elizen sistema VI.-VII. mendeetan sortu zen.

Berezko elizak elizbarrutiaren elizak izatera —alegia, parrokiak izatera— pasatu ziren. Prozesu hau Frantzian eta Asturias-Leon erresumetan IX. mendearen bigarren erdialdean hasi zen. Eliza pribatu horien jabe batzuek (eta monasterio pribatu batzuek) elizbarrutiari eraikinaren doaintza egiten zioten. Horrelako aurrekaririk ez da Nafarroan dokumentatu, dokumentu garaikiderik ez dugulako, baina horrek ez du esan nahi existitu ez direnik. Edonola ere, XI. mendearen, beneditinizazioa zela-eta, Nafarroan berezko eliza eta monasterio gehienak «pribatu» izaera galtzen joan ziren, *ius episcopalea* indartzen zen heinean. Iruñeko erresuman, Antso Gartzes IV.a Peñalengoaren garaian (1054-1076), berezko eliza gehienak beneditar monasterio handietara edota elizbarrutietara pasatu ziren. Dohaintza

hauek erregeak berak hasi zituen, baina laster asko nobleek jarraitu zioten, arrazoi espiritual zein ekonomikoengatik<sup>2</sup>.

Honek guztiak ez du esan nahi erlijio-tokien berezko jabetzak erabat desagertzen direnik. Hor ditugu, besteak beste, kofradien adibideak, jauntxoen jaурgoetan dauden elizak, edota udalek eraikitako hainbat eta hainbat eraikin (eliza batzuk, ermitak, kaperak, eta abar).

Edozein kasutan, eraikin bakoitzak bere historia berezia izan du, eta horri reparatu beharko zaio lehenik eta behin.

### **3. Estatu liberaleko desamortizazioa**

Egungo egoera juridikoa ulertzeko gakoa XIX. mendean aurkitzen dugu, Estatu liberaleko desamortizazioan.

Elizaren ondare ikaragarri handia desamortizazioarekin txikitzen hasi zen. Desamortizazioa, XVIII. mendera arte Elizatik kanpo baina berarengandik hurbil zeuden erakundeen, Elizaren edo udalen landa- eta hiri-finkak «nazio-ondasun» bihurtzeko prozesuari deritzogu<sup>3</sup>. Nafarroan Elizaren ondarearen desamortizazioa 1798an hasi zen, Karlos IV.aren gai honen inguruko lehenengo xedapenekin, baina prozesuaren muina Mendizabalen Legearen eskutik, 1836 eta 1841 artean, etorri zen (Donézar, 1975). Helburua Godoyk hasia zuenarekin jarraitzea zen, hau da, ondasun higiezinak desamortizatzen jarraitza. Mendizabalek lehenengo desamortizazioaren asmoak harago eraman zituen eta, gure gaiari dagokionez, 1837ko uztailaren 29ko Legearekin klero sekularraren ondasunak desamortizatu nahi izan zituen:

Las Cortes, en uso de sus facultades, han decretado lo siguiente:

I. Se suprimen la contribución de diezmos y primicias y todas las prestaciones emanadas de los mismos.

II. Todas las propiedades del clero secular en cualesquiera clases de predios, derechos y acciones que consistan, de cualquier origen y nombre que sean, y con cualquiera aplicación o destino con que hayan sido donadas, compradas o adquiridas, se adjudican a la nación, convirtiéndose en bienes nacionales.

VI. El producto total de estos bienes servirá en parte de pago del presupuesto de la dotación del clero y entrará en cuenta de su haber.

VII. El déficit hasta el completo de la dotación del clero y los gastos del culto se suplirá por un repartimiento, que se hará en la nación con el nombre de contribución del culto, al cual están sujetos en proporción a sus haberes todos los contribuyentes a las demás cargas de Estado...”.

---

2. Ikusi, besteak beste, Jimeno Aranguren, 2007 eta 2009.

3. Desamortizazioaren historia oso ongi ikertua dago eta dozenaka lan bikain aurkitzen ahal ditugu. Euskaraz, Francisco Tomás y Valientearen eskuliburuan datorren sintesia gomendagarria da oso (2003: 474-477). Gai honen inguruan, egile horren lan klasikoak ere ezinbesteko erreferentziak dira Tomás y Valente, 1971; 1974b. Ikuspegí orokor batetik ere, Germán Rueda, 1993 eta Rueda, García Colmenares eta Díez Espinosa, 1986.

Dena den, liberalek ez zuten nahi herria, kleroa eta abar haien kontra jartzek. Hori ekiditeko, Elizari bere ondasunak eta hamarreneko errentak kentzearen truk, Estatuak Eliza Katolikoaren kultu- eta klero-gastuak sarreren pentzudan ordaindu behar zituen. Bestalde, 1837ko uztailaren 29ko Legearen desamortizazio-neurriak ez ziren bat-batean indarrean ezarri. 1840ko udan legearen desamortizazio-manuak indargabetu ziren eta, geroxeago, Esparteroren 1841eko irailaren 2ko Legeak oso-osorik jarri zuen indarrean Mendizabalen 1837ko Legea, eta ordutik aurrera lege horrek zeharoko eragingarritasuna izan zuen. Irailaren 2ko Esparteroren lege ezagun horren bidez, klero sekularraren eliza-ondasun guztiak (elizen eta kofradien eraikinak) jarri ziren salgai:

Art. 1º. Todas las propiedades del Clero secular..., son declarados bienes nacionales.

Art. 2º. Son también bienes nacionales los bienes, derechos y acciones de las Fábricas de las Iglesias y Cofradías.

Art. 3º. Se declaran en venta todas las fincas, derechos y acciones del Clero catedral, colegial, Parroquial, Fábricas de las Iglesias y Cofradías a que se refieren los artículos anteriores

Art. 4º. El Gobierno se encargará de la administración y recaudación de todas las rentas y propiedades antes mencionadas desde el 1 de octubre próximo, llevando cuenta separada de sus rendimientos, que se aplicarán a la dotación del culto y Clero, conforme a la ley presentada por el Gobierno a las Cortes en 23 de junio pasado.

Art. 5º. Pertenecen a los actuales poseedores las rentas y productos hasta el 30 de septiembre.

Seigarren artikuluak salbuespen batzuk ezartzen zituen, Nafarroako ondareari dagokionez, oso garrantzitsuak izan zirenak. Nafarroako ondarearen jabetzaren eztabaida honetan dauden ondare mota ezberdin nendik norakoen ibilbide juridikoa hemendik abiatur behar da, hots, honako kasu hauetan: kofradia batzuk, ongintzarako, ospitalitaterako eta irakaskuntzarako erakundeak, apezpikuen jauregiak, apaizetxeak, baratzeak eta lorategiak, eta abar<sup>4</sup>: Hurrengo artikuluak errenten administrazioa, finken inventarioa, klasifikazioa eta prezioen eta hipoteken ingurukoak ziren.

Desamortizatutako lurren erosleak lau multzo handitan sailka genitzake. Lehenak, desamortizazioaren negoziatzaile batzuk, desamortizatutako ondasunen espekulatzaileak; bigarrenak burgesak; hirugarrenak nekazari-klase ertainak, ondasunen jabeak zirenak eta Antzinako Erregimenean jabeak zirenak; laugarrenak, noble eta atzerriko erosleak. Horien guztien pentsamoldea burgestu egin zen erosketa horien ostean. Nafarroan —leku gehienetan bezala—, ordena erlijiosoen ondarea 1838an saltzen hasi zen, baina klero sekularraren ondasunen salmenta 1841. arte atzeratu egin zen, eta Esparteroren Legearen eskutik abiatutako pro-

4. Art. 6º. Excepciones: 1) Bienes pertenecientes a Prebendas, Capellanías, Beneficios y demás Fundaciones de patronato de sangre activo o pasivo. 2) Bienes de Cofradías y Obras pías procedentes de adquisiciones particulares para cementerios y otros usos privativos a sus individuos. 3) Los bienes dedicados a hospitalidad, beneficencia e instrucción pública. 4) Edificios de iglesias y anejos. 5) Palacios del Obispo y casas de residencia de los párrocos y sus tenientes, con sus huertos y jardines adyacentes.

zesua izan genuen, Nafarroa, dagoeneko, erresuma izateari utzi eta probintzia izatera pasatu zenean (Donézar, 1975: 223-225).

1843an moderatuek boterea lortu zutenetik, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanetan aldaketak izan ziren, eta desamortizazioa egikaritzeko ekimenak moteldu ziren. Moderatuen Elizarekin adiskidetzeko nahia argi agertzen da elizondonasunen salmenta ezabatu eta elizgizon sekularrei euren ondasunen zati bat bueltatu zietenean, 1844ko uztailaren 26ko eta abuztuaren 8ko Erreginaordetzen Dekretuaren bidez:

I. Se suspende la venta de los bienes del clero secular y de las comunidades religiosas de monjas, hasta que el Gobierno, de acuerdo con las Cortes, determinen lo que convenga.

II. Los productos en renta de dichos bienes se aplicarán desde luego íntegros al mantenimiento del clero secular y de las religiosas...

1845eko maiatzaren 23ko Konstituzioak ere moderantismoak bultzatu zuen Elizareniko gerturazte-politika azaltzen du. Izañ ere, 15. artikuluaren bidez, Elizaren hierarkiari lehentasunezko tokia eman zion goi-ganberan. Senatari gisa hautagai izateko artikulu horrek beharrezkotzat jotzen zuen urteko kontribuzioa altua izatea edo klaseetako kidea izatea, eta multzo horretan apezpikuak eta artapezpikuak sartzen ziren. Senatuak ahalmen judicial garrantzitsuak zituen. Hortaz gain, 11. artikuluak garbi azaltzen zuen Estatuaren izaera katoliko, apostoliko eta errromatarra<sup>5</sup>. Elizaren ondareari dagokionez, Konstituzioaren izaera Isabel II.aren 1845eko apirilaren 3ko Errege Dekretuan islatzen da<sup>6</sup>. Eta, urte bat geroago, ermita, santutegi eta kofradien kasuentzat horren garrantzitsua den Isabel II.aren 1846ko apirilaren 20ko Errege Agindua onartu zen:

Por esta Real Orden se declararon nulas las ventas de los bienes de Ermitas, Santuarios y Cofradías que se hubiesen verificado con posterioridad al Real Decreto de 13 de Agosto de 1844, previniéndose, además, que se indemnice a los compradores de las cantidades que hubiesen satisfecho por el expresado concepto.

1847tik aurrera, garai horretako legeriari jarraituz, Nafarroan Jerusalénko San Joan ordenaren ondarea saltzen hasi zen. 1847ko ekainaren 11ko Errege Dekretuak, militar ordenen ingurukoak (Isabel II.a), hauxe zioen:

I. Se procede a la venta en pública subasta de todos los bienes de Maestrazgos y Encomiendas de las cuatro Órdenes Militares y de la de San Juan de Jerusalén, vacantes o que vacaren.

II. A este fin se formará y publicará una relación exacta y circunstanciada de las fincas rústicas y urbanas, y de los censos pertenecientes a dichas Encomiendas y Maestrazgos...".

5. Art. 11. La Religión de la Nación española es la católica, apostólica, romana. El Estado se obliga a mantener el culto y sus ministros.

6. Artículo único. Los bienes del clero secular no enajenados, y cuya venta se mandó suspender por el Real Decreto de 26 de Julio de 1844, se devuelvan al mismo clero.

Ildo berean, hilabete bat geroago 1847ko uztailaren 12ko Isabel II.aren Errege Agindua<sup>7</sup> eta 1848ko apirilaren 7ko Errege Dekretua etorri ziren. Azken honetan Estatuarenak ziren ermita, santutegi eta kofradien ondareen salmenta arautzen zen:

I. Con arreglo a los dispuesto en mi Real Decreto de 19 de Febrero de 1836, en virtud de la Ley de 16 de Enero del mismo año, y confirmado por la de 28 de Julio de 1837, se procederá a la venta de todos los bienes raíces, acciones, derechos y rentas procedentes de las Encomiendas vacantes de las cuatro Órdenes Militares, Maestrazgos, edificios-conventos y los censos de todas clases que son propiedad de la nación.

II. Del mismo modo y conforme a la Ley de 2 de Septiembre de 1841, e Instrucción de la propia fecha, se procederá igualmente a la venta de todos los bienes raíces, censos, rentas, derechos y acciones procedentes de Ermitas, Santuarios, Hermandades y Cofradías que también pertenecen al Estado.

III. Se declaran derogados todos los Reales Decretos, Órdenes y disposiciones que previenen la supresión de la venta de los bienes a que se refieren los artículos precedentes....”.

Jerusalemgo San Joan ordenaren inguruko Isabel II.aren azken Errege Dekretua 1848ko maiatzaren 1eko dugu<sup>8</sup>.

Desamortizarioaren giro horretan Elizaren ondarearen inguruan emandako urrats garrantzitsu bat Spainiako erreinuaren eta Egoitza Santuaren arteko 1851ko martxoaren 16ko Konkordatua izan zen. Garai moderno eta garaikideetan, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak konkordatuen bidez arautu izan ziren askotan, hau da, bi botereen arteko hitzarmenen bidez. Eta, batik bat, Estatuak Elizako goikarguak izendatzeko nola parte hartuko zuen antolatzeko xedearekin. Frantzian, adibidez, 1610ean Frantzisko I.ak eta Leon X.ak egindako konkordatuak baimena ematen zion Erregeari gotzain eta abadeak izendatzeko proposamenak egiteko. Napoleon Bonaparte lehenengo kontsulak eta Pio VII.a aita santuak 1801ean egindako konkordatuak Estatuko buruzagiari eskubidea ematen zion gotzainak izendatzeko, eta behin izendatuak izan ondoren, aita santuak inbestitzen zituen kanonikoki (Gilsissen, 1979: 18-28).

1851ko Konkordatuak 1845eko Konstituzioaren konfesionaltasuna sendotu zuen erlijio katolikoa «beste edozein kultu baztertuz, Spainiako nazioaren erlijio bakarra» zela esatean. Erlijio-tokien ondareari dagokionez, emakumezko eta gizonezko erlijiosoen etxeak sortzeko aukera ezarri zen, baita existitzen ez ziren tokietan seminario kontziliarrak sortzeko beharra ere. Baina, are eta garrantzi-tsagoa izan zena, 41. artikuluaren arabera, Elizak etorkizunean mota guztietako ondasunak eskuratzeko eskubide osoa zuen, titulu juridiko ororen bidez<sup>9</sup>.

7. I. La enajenación de los bienes pertenecientes a los Maestrazgos y Encomiendas de las cuatro Órdenes Militares y a la de San Juan de Jerusalén, y todas las operaciones anteriores y necesarias para su realización, se verificarán conforme a lo dispuesto en el Real Decreto de 19 de Febrero de 1836, Instrucción de 1 de Marzo siguiente y demás Órdenes posteriores para la venta de bienes nacionales, salvas las diferencias expresadas en el Real Decreto citado de 11 de Junio...

8. I. Se declaran en venta todos los bienes raíces, censos, rentas, derechos y acciones procedentes de las Encomiendas de la Orden de San Juan de Jerusalén...

9. Art. 41. Además, la Iglesia tendrá el derecho de adquirir por cualquier título legítimo, y su propiedad, en todo lo que posee ahora o adquiriere en adelante será solemnemente respetada...

Konkordatu honekin desamortizazioa gelditu zen, baina, era berean, Tomás y Valiente dioen bezala, Elizak Isabel II.aren erregimena aintzat hartu eta desamortizazioaren prozesu luzean erakundearen ondasunak erosi zituztenen kontra jarduerarik ez egiteko konpromisoa hartu zuen (Tomás y Valiente, 2003: 696-697), 1860ko apirilaren 4ko Spainiako Erresumaren eta Egoitza Santuaren arteko Hitzarmen Legean agertzen zen bezala<sup>10</sup>. 1851ko Konkordatuarekin abiapuntu berri bat ezarri zen.

Konkordatuaren printzipioak garatu ziren, eta gutxika-gutxika lege zibil arruntek printzipio horiek ezarri zituzten, hala-nola, ondareari dagokionez, 1851ko maiatzaren 13ko Isabel II.aren Erret Agindua<sup>11</sup> eta 1855eko otsailaren 10eko Isabel II.aren Erret Agindua<sup>12</sup>.

Nafarroan desamortizazioaren prozesuari ez zitzaison berriro heldu 1863 arte, Pascual Madozen 1855eko maiatzaren 1eko Desamortizazio Zibilaren Lege Orokorra onartu eta zortzi urte geroago. Legea orokorra zen, jabetza kolektiboko ondasun guztiak salgai jarri baitzituen: batetik, Mendizabalen garaian saldu ez zirenak; bestetik, udalerrien ondasunak («Berezkoak eta Komunalak»); hortik datorria emandako izena («zibila»). Baino Elizaren ondasunek ere beren lekua izan zuten. Desamortizaziotik at gelditzen ziren artzapezpiku eta apezpikuen jauregiak, apaizetxeak, baratzeak, lorategiak eta abar:

I. Se declaran en estado de venta, con arreglo a las prescripciones de la presente Ley, y sin perjuicio de las cargas y servidumbres a que legítimamente estén sujetos, todos los predios rústicos y urbanos, censos y foros pertenecientes al Estado, al clero, a las Órdenes Militares de Santiago, Alcántara, Calatrava, Montesa y San Juan de Jerusalén, a Cofradías, Obras pías, Santuarios, al secuestro del ex-Infante Don Carlos, a los propios y comunes de los pueblos, a la beneficencia, a la instrucción pública. Y a cualesquiera otros pertenecientes a manos muertas, ya estén o no mandados vender por leyes anteriores.

II. Exceptúanse de los dispuesto en el artículo anterior: Los edificios destinados, o que el Gobierno destinare al servicio público, los edificios que ocupan hoy los establecimientos de beneficencia e instrucción, el palacio o morada de los M. RR. Arzobispós y RR. Obispos, y las rectorías o casas destinadas para habitación de los curas párrocos, con los huertos o jardines a ellas anejos, las huertas y jardines pertenecientes al instituto de las Escuelas Pías, los bienes de capellanías eclesiásticas destinadas a la instrucción pública, durante la vida de sus actuales poseedores, los montes y bosques cuya venta no crea oportuna el Gobierno, las

---

10. Autorizando al Estado la quieta y tranquila posesión de los bienes usurpados y vendidos por las Leyes desamortizadoras —exceptuando los que no hayan sido enajenados hasta la fecha— cuya venta queda suspendida-, y que su capital se convertirá en Deuda pública al 3%.

Asimismo se subsanan las divergencias surgidas sobre el patrimonio de la Iglesia española: casas parroquiales con sus huertos, palacios episcopales, seminarios conciliares, bibliotecas y edificios destinados al culto, y edificios del clero regular de ambos sexos.

11. S. M. la Reina (Q.D.G.), teniendo en consideración lo que se establece en el Concordato celebrado con la Santa Sede, se ha servido mandar que ínterin se acuerda lo que corresponda para llevarlo a efecto, se suspenda desde luego la venta y redención de los bienes, censos y demás pertenencias procedentes de las extinguidas comunidades regulares de ambos sexos, clero secular, Ermitas, Santuarios, Hermandades y Cofradías.

12. Mando suspender la venta de bienes, cuya subasta no se hubiese verificado, hasta la aprobación por las Cortes del proyecto de Ley sobre desamortización.

minas de Almadén, las salinas, los terrenos que hoy son de aprovechamiento común, previa declaración de serlo..., y por último cualquier edificio o finca cuya venta no crea oportuna el Gobierno por razones graves.

III. Se procederá a la enajenación de todos y cada uno de los bienes mandados vender por esta Ley, sacando a pública licitación las fincas o sus suertes a medida que lo reclamen los compradores, y no habiendo reclamación, según lo disponga el Gobierno....”.

Nafarroako desamortizazioaren azken epealdia, 1863an hasi eta XIX. mendearen bukaeran amaitu zen, baina aurrekoarekin konparatuta, ondasun gutxi desamortizatu ziren. Prozesu horretan, gainera, 1875eko urtarilaren 9an, M. Cristina de Habsburgo-Lorenaren erreginordetzaren Errege Dekretuaren garrantzia aipatu beharra dago, honako erredakzioarekin:

Estableciendo la devolución a la Iglesia de los bienes exentos de permutas, poniendo fin a cuarenta años de desamortización eclesiástica, y determinando la indemnización -constituida sobre Deuda pública consolidada al 3%- que el Estado ha de conceder a la Iglesia por el valor de una parte de los bienes vendidos por él después de la firma del Concordato de 1855. Los bienes anteriores quedaban en poder del Estado para siempre, sin que nadie pudiese molestarle por ello.

Nafarroan besterendutako ondasun gehienak 1838. eta 1851. urteen artean izan ziren, eta gehienak landa-lurrik (Donézar, 1975). Erlilio-tokiei dagokienez, monasterioak eta komentuak izan ziren desamortizazioa pairatu zuten bakarrak. Nafarroan, estatu osoan bezala, desamortizazioaren legeak aplikatzea oso zaila izan zen. XIX. mendeko historia politiko korapilatsuak eta legedi-aldeketa anitzek Elizaren jabetza horiek mantentzea lagundu zuten; bere aldetik, jurisprudentziak ezer gutxi gehitu zuen (Tomás y Valiente, 1974c; 1974d).

### 3. Bigarren Errepublika

1851ko Konkordatua hautsi eta indarrik gabe geratu zen 1931ko abenduaren 9ko Konstituzioa onartu zenean. Ezaguna den bezala, Errepublikako Konstituzioak herri-subiranotasuna aldarrikatzen zuen. Konstituzioa ez zen sozialista, baina gizarte-edukia oso aurreratua zuen, giza eskubideen aldarrikapen oso zabala egin baitzen (giza banakoen askatasuna, gai sozialak, jabetza pribatua mugatzea...). Estatu laikoa sortzen zuen, eta ez zegoen erlilio ofizialik (26. art.).

Erlilio-tokien ondareari dagokionez, Bigarren Errepublikako Gobernuak 1933ko maiatzaren 18an erlilio-konfesioen eta kongregazioen legea onartu zuen. Hirugarraren titulua konfesio erlijiosoaren ondareen araubidea zen, eta bertan, aldaketarik sakonena jabetzaren eta edukitzaren artean ezartzen zuena da. Hau, ez dugu «desamortizazio» batia ateak irekiko lizkiodeen prozesu batekin nahastu behar.

11. artikuluaren arabera, erlilio-tokien jabetza Estatuaren esku jartzen zuen (ez udalen esku ezta Elizaren esku ere).

Art. 11. Pertenezcan a la propiedad pública nacional los templos de toda clase y sus edificios anexos, los palacios episcopales y casas rectorales, con sus huertas anexas o no, seminarios, monasterios y demás edificaciones destinadas al servicio del culto católico o de sus ministros. La misma condición tendrán los muebles,

ornamentos, imágenes, cuadros, vasos, joyas, telas y demás objetos de esta clase instalados en aquéllos y destinados expresa y permanentemente al culto católico, a su esplendor o a las necesidades relacionadas directamente con él.

Las cosas y los derechos relativos a ellas referidas en el párrafo anterior quedan bajo la salvaguardia del Estado como personificación jurídica de la nación a que pertenecen y sometidas a las reglas de los artículos siguientes.

Baina 12. artikuluak, erlijio-tokien edukitza argi eta garbi Elizari uzten dio, eta eliza, apezpiku-jauregi, seminario, apaizetxe, eta abarrek zergak ordaindu beharko dituzte<sup>13</sup>. Estatuak, lege berezi baten bidez, 11. artikuluak aurreikusten dituen gauza eta ondasunen lagapena egin ahalko du, baina betiere, 12.ean xedatzen den bezala, Estatuak gorde eta eutsiko die (16. art.)<sup>14</sup>. Lege berezi bat sortu arte, erlijio-toki hauen izaera alienaezina eta preskribaezina izango da (13. art.)<sup>15</sup>, eta lege berezia eman baino lehenago Eliza Katolikoari entzun ondoren expediente bat idatziko da (14. art.)<sup>16</sup>. Edonola ere, kasu berezi batzuetan Elizaren jabetza pribatua 15.<sup>17</sup> eta 19. artikuluetan<sup>18</sup> aurreikusten da. Arautakoaren ildotik, 17.<sup>19</sup> eta 18. artikuluak Nazioaren altxor artistikoaren ingurukoak ziren<sup>20</sup>.

---

13. Art. 12. Las cosas y derechos a que se refiere el artículo anterior seguirán destinados al mismo fin religioso del culto católico, a cuyo efecto continuarán en poder de la Iglesia católica para su conservación, administración y utilización, según su naturaleza y destino. La Iglesia no podrá disponer de ellos, y se limitará a emplearlos para el fin a que están adscritos.

Sólo el Estado, por motivos justificados de necesidad pública y mediante una ley especial, podrá disponer de aquellos bienes para otro fin que el señalado en el párrafo anterior.

Los edificios anexos a los templos, palacios episcopales y casas rectorales con sus huertas anexas o no, Seminarios y demás edificaciones destinadas al servicio de los ministros del culto católico, estarán sujetos a las tributaciones inherentes al uso de los mismos.

14. Art. 16. El Estado, por medio de una ley especial en cada caso, podrá ceder, plena o limitadamente, a la Iglesia católica las cosas y derechos comprendidos en el artículo 11, que, por su falta de valor de interés artístico o de importancia histórica, no se considere necesario conservar en el Patrimonio público nacional. La ley señalará las condiciones de la cesión.

El sostenimiento y conservación de lo cedido en esta forma quedará completamente a cargo de la Iglesia.

No podrán ser cedidos en ningún caso los templos y edificios, los objetos preciosos ni los tesoros artísticos e históricos que se conserven en aquéllos al servicio del culto, de su esplendor o de su sostenimiento.

Estas cosas, aunque sigan destinadas al culto, a tenor de lo dispuesto en el artículo 12, serán conservadas y sujetas por el Estado como comprendidas en el Tesoro artístico nacional.

15. Art. 13. Las cosas a que se refieren los artículos anteriores serán, mientras no se dicte la ley especial prevista, inalienables e imprescriptibles, sin que puedan crearse sobre ellos más derechos que los compatibles con su destino y condición.

16. Art. 14. Antes de dictarse la ley especial a que hace referencia el artículo 12, deberá formarse expediente, en el que se oirá a los representantes de la Iglesia católica, sobre la procedencia de colocar las cosas adscritas al culto en disponibilidad de la Administración.

17. Art. 15. Tendrán el carácter de bienes de propiedad privada las cosas y derechos que, sin hallarse comprendidas entre los señalados en el artículo 11, sean considerados también como bienes eclesiásticos.

En caso de duda, el ministerio de Justicia instruirá expediente, en el que se oirá a la representación de la Iglesia católica o a la persona que alegue ser propietaria de los bienes. La resolución del expediente corresponde al Gobierno, y contra ella procederá el recurso contencioso-administrativo.

18. Art. 19. Los bienes que la Iglesia católica adquiera después de la promulgación de la presente ley y los de las demás Confesiones religiosas, tendrán el carácter de propiedad privada, con las limitaciones del presente artículo.

Bigarren Errepublikako historia gatazkatsuak ez zuen artikulu hauek egitaritzea utzi, eta are gutxiago Nafarroan.

#### 4. Frankismoa

Gerra Zibilaren ondoren Francoren erregimenak Errepublikak Elizaren kontra emandako legedia indargabetu zuen. 1945eko uztailaren 17ko Espainiaren Foruaren 6. artikuluak Estatuaren konfesionaltasun katolikoa aldarrikatzen zuen, eta Elizaren goi-mailako hierarkiak Gorteetan (1942ko uztailaren 17ko Legea) eta Erresumako Kontseiluan parte hartu zuen (1947ko uztailaren 22ko eta 1967ko uztailaren 22ko Legeak). Frankismoaren izaera nazional-katoliko hori ere Vaticanoarekin sinatutako Konkordatu berrian agerian geratu zen, 1953ko abuztuaren 27an sinatutakoa (Tomás y Valiente, 2003: 697-698). Giro nazional-katolizista horretan, Hipoteca Legearen 206. artikulua kokatu behar dugu (1946ko otsailaren 8ko Dekretua), Nafarroako Elizak eztabaidean dauden ondasunen immatrikulatzeprozesuari horrenbeste erraztasun ematen ari zaiona:

El Estado, la Provincia, el Municipio y las Corporaciones de Derecho Público o Servicios Organizados que forman parte de la estructura política de aquél y las de la Iglesia Católica, cuando carezcan de título escrito de dominio, podrán inscribir el de los bienes inmuebles que les pertenezcan mediante la oportuna certificación librada por el funcionario a cuyo cargo esté la administración de los mismos, en la que se expresará el título de adquisición o el modo en que fueron adquiridos.

---

Se reconoce a la Iglesia católica, a sus institutos y entidades, así como a las demás Confesiones religiosas, la facultad de adquirir y poseer bienes muebles de toda clase. También podrán adquirir por cualquier título bienes inmuebles y derechos reales; pero sólo podrán conservarlos en la cuantía necesaria para el servicio religioso. Los que excedan de ella serán enajenados, invirtiéndose su producto en título de la Deuda emitida por el Estado español.

Asimismo deberán ser enajenadas, e invertido su producto de la misma manera, los bienes muebles que sean origen de interés, renta o participación en beneficio de Empresas industriales o mercantiles.

El Estado podrá, por medio de una ley, limitar la adquisición de cualquier clase de bienes a las Confesiones religiosas, cuando aquéllos excedan de las necesidades normales de los servicios religiosos.

19. Art. 17. Se declaran inalienables los bienes y objetos que constituyen el Tesoro artístico nacional, se hallen o no destinados al culto público, aunque pertenezcan a las entidades eclesiásticas.

Dichos objetos se guardarán en lugares de acceso público. Las autoridades eclesiásticas darán para su examen y estudio todas las facilidades compatibles con la seguridad de su custodia.

El traslado de lugar de estos objetos se pondrá en conocimiento de la Junta de Defensa del Tesoro artístico nacional.

20. Art. 18. El Estado estimulará la creación de museos por las entidades eclesiásticas, prestando los asesoramientos técnicos y servicios de seguridad que requiera la custodia del Tesoro artístico.

Podrá además disponer que cualquier objeto perteneciente al Tesoro artístico nacional se custodie en los Museos mencionados.

La Junta de conservación del Tesoro artístico nacional procederá a la inmediata catalogación de los objetos que lo constituyan y que se hallen en poder de las entidades eclesiásticas, siendo éstas responsables de las ocultaciones que hiciera, así como de la conservación de dicho tesoro y de la estricta observancia de lo dispuesto en la presente ley, y en la legislación correspondiente sobre la defensa del Tesoro artístico y de los monumentos nacionales, que se declara subsistente en todo lo que no se oponga a los anteriores preceptos.

Frankista, eskuindarra eta ultraortodoxoa dugu ere Nafarroako Foru Berria (1973), ondarearen gai honen eztabaidari dagokionez, *usukapioa* erregulatzen duena.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformatik 1947ko Hipoteka Legea Konstituzioaren kontrakoa dela argudiatu da (eta, zentzu horretan, Nafarroako Foru Berria ere sartu beharko lukete). Spainiako Trantsizioaren paradoxa eta argi-ilunen aurrean gaude. Ikuspegi juridiko soil batetik, frankismoan onartutako ehunka lege ditugu, eta horrek ez du haien konstituzionaltasuna kentzen. Denboraren poderioz eta behar berrietara egokituz, edo Konstituzioaren kontrakoak iza-teagatik, lege hoiek aldatzen joan dira, osotasunean ala artikuluka. Hipoteka Legearen 206. artikuluak, adibidez, ez du aldaketarik izan, baina bai 1946ko Legearen beste artikulu askok, 7/1998, 1/2000, 24/2001, 53/2002, 7/2003, 22/2003, 62/2003 Legeek eta 15/2003 Lege Organikoak aldatuta.

Bada, frankismoarekin bukatzeko, azken puntu garrantzitsu bat. Desamortizazioak besterendu zituen erlijio-eraikinak Nafarroako botere frankistek «birsakralizatu» zitzuten, monasterio hoiak berriro ere erlijio-ordenei emanet. Adibidez, Nafarroako monasterio guztiak bezala, zistertarren Irantzukoa seklularizatua eta desamortizatua izan zen (1839). Eraikinak erori ziren, eta ehun urte geroago, Nafarroako Foru Diputazioak zaharberritu zituen eta teatinoei «utzi» zien (1945) (Jimeno Jurio, 1970: 6), egun bizi eta kudeatzen dutenak. Urte horretan bertan, Leireko monasterioa Silosetik etorritako beneditar komunitate batekin berrezarri zen. Leirek ere Mendizabalen desamortizazioa pairatu zuen eta 1836an monasterioa itxi eta bere ondasunak likidatu egin ziren. Iratxeko itxiera ere 1836an izan zen. Eraikina karlistaldietan, ospitalea izan zen, eta elizaren ondare liturgikoa hainbat parrokiatik sakabanatu zen, Iratxeko Ama Birjina eta San Beremundoren erlikien kutxa barne. Baino haren birsorkuntza monastikoa ez dugu frankismoan kokatu behar, 1885ean baizik, Estatuak eskolapioei erabiltzeko lagapena egin zienean. Eskolapioek bere gain hartu zuten monasterioa, eta 1985ean azken kongregazio horrek monasterioa utzi zuenean, monumentu zoragarri hau Nafarroako Gobernuaren ondarera pasatu zen<sup>21</sup>. Suposatzen dugu klero erregularra duten garai batean desamortizatutako bestelako monasterio eta komentuen komunitateak desagertzen direnean, Iratxerek gertatu den bezala, ondasun hoiak Nafarroako Gobernura pasatuko direla. Lagapen hutsak izan ziren hoiak denborarekin ezin dira jabetza bihurtu, hots, ezin da desamortizazioaren «amortizazio» bat gauzatu.

### **Ondorioak: Zuzenbide positibotik hausnarketa iushistoriko bat**

Erlilio-tokien jabetzaren eztabaida argitzeko banakako ikerketa sakonak abiatu behar dira, eraikin bakoitzak bere historia berezia baitu. Ondasun gehienen inguruau, tamalez, informazio gutxi aurkitu ahalko da, Erdi Aroko dokumentazio urriarengatik.

---

21. Gobernuak 2005ean bertan jarri behar zuen Nafarroako Etnografiako Museoaren proiektua zapuztu, eta Paradore pribatu bat jartzeko proiektuari ekin zion. José Mari Esparzaren hitzak geureak egink, hauxe bai «eskandalu monumentala».

Egon badira nire uste apalean Eliza Katolikoak zilegitasun osoz inskribatu dituen ondasunak (katedralak, eliza parroklial anitz...), bestelako batzuk zalantzazkoak izan daitezke (ermitak eta bestelako pietate-leku herrikoiak), hauetako batzuk udalenak direla ondorioztatzea erraza baita, dokumentazio historikoak argi uzten duen bezala.

Indarrean dagoen legediak 1998tik aurrera erlijio-tokien immatrikulaziorako nolabaiteko lasterketa bati hasiera eman dio. Lasterketa horretan Eliza Katolikoak aurrea hartu du; udal gehienak, ordea, oraindik irteeran daude, lo seko.

Elizak 2007ko martxoan Tuterako katedrala erregistratu zuen. Eztabaidea katedralaren barnean dagoen Santa Anaren kaperaren jabetzaren inguruan piztu zen, eta udalak txosten juridiko bat eskatu zuen. *Diario de Noticias*ek jaso zuen horren laburpena:

El informe que ahora ha sido dado a conocer al Ayuntamiento deja pocas puertas abiertas a la posibilidad de que la capilla de Santa Ana pueda desvincularse de esta propiedad. De hecho, considera que ni las intervenciones de la Institución Príncipe de Viana o el Gobierno de Navarra (9 millones de euros con dinero público) contradicen tal propiedad. Por otro lado, el documento considera “inatacable” la inscripción registral que se ha efectuado y añade que las recientes obras de restauración de la catedral (de la capilla de Santa Ana, integrante de la misma), confirman la propiedad de la Iglesia, ya que, antes de los trabajos, la Diócesis solicitó al Ayuntamiento de Tudela la licencia de obras y el Consistorio la otorgó<sup>22</sup>.

Txosten hori interesgarria izango da oso, eta egunkariko berri horretan esaten denarekin bat nator. Mikel Karreraren hitzalditik abiatuta, gogoratuko nuke finka bat immatrikulatzearen ondorioa bakar-bakarrik baliogabetu dezakeela ondorengo sententzia batek. Eragin immatrikulatorioa argi dago, beraz, Elizaren aldetik; eta horri Zuzenbideak jabetzaren presuntzioa lotzen dio.

Nafarroako Foru Berriaren usukapioa ere gogora ekarri behar dugu. Usukapioa gauza baten eta beste eskubide errealen jabetza eskuratzearen modua da, eskubide horren jabetza jarraituaren bidez legeak markatzen duen denboran. Nafarroako Foru Berriaren 356. legeak usukapioaren epeak aipatzen ditu: ondasun higigarrien gaineko usukapioa hiru urtekoa da, eta ondasun higiezinenetako hogei urtekoa, edukitza galdu duen jabearen egoitza Nafarroan badago, eta hogeita hamar urtekoa, bestelako kasuetan. Hogeitako urteko usukapioan ez da zenbatuko absentzia-epea. Baino gureari dagokionez, gakoa 357. legean dago. Hemen *betezkunak* aipatzen dira: «Jabetza usukapioaren bidez eskuratzen, beharrezko da eskuratzaleak gauza jabe gisa edukitza, arrazoi zuzenaz eta onustez. Edukitza justifikatzen duen arrazoia frogatuz gero, uste izanen da edukitza onustekoa dela, eta ez da onartuko edukitza hasi ondotik hori galdu delako frogarik. Norbait onusteduna dela ulertuko da, baldin eta horrek uste badu eskubidearen titular gisa edukitzeko ahalmena duela». Artikulu horrek ere *Preskripzio berezi* bat sartzen du, zeinaren arabera, ezin bada frogatu arrazoi zuzenik dagoen edo ez, jabetza eskuratuko da jabe gisa berrogei urteko edukitza baketsua izateagatik, salbu eta jabea Nafarroatik kanko egon denean denbora horretan guztian. Arrazoi zuzen hori izan

22. Arigita, N. (2009): “La Iglesia inscribió la catedral de Tudela en el Registro de la Propiedad en marzo de 2007”, *Diario de Noticias*, 2009ko martxoaren 17a, 33. or.

liteke herri batek Elizari ondasun horien lagapena egin izana. Baino gero 360. legea dator, eskubide-itxuraren inguruakoa: «Norbaitek, bere kabuz edo beste inoren bitartez, aurkatasunik gabe egikaritzen badu berak itxuraz duen eskubidea, uste izanen da horren titularra dela, aurkakoa frogatzen ez den bitartean».

Elizak argudio sendoak ditu, ez bakarrik eragin immatrikulazioarengatik, baita legedi historikoa jabetza horren aldekoa izan delako: Zuzenbide Kanonikoa, franskismo legedia, Bigarren Errepublikako edukitze-eskubideak, XIX. mendeko desamortizazio moderatua...

Hori dela eta, salaketa etikoaz haraindi (non erlijio-tokien edukitzearren argudio sendoa erabili beharko litzatekeen), ez nioke gomendatuko udal batiz Elizaren kontra immatrikulatuta dagoen ondasun batengatik auzitan sartzea (prozesua garestia eta luzea izango litzateke), baldin eta erlijio-toki horren ibilbide historiko osoa aintzat hartu beharko duen ikerketa historiko-juridiko sendo baten bermea ez badu. Bestalde, immatrikulatzeko ondasunak oraindik gelditzen badira, biderik pragmatikoena immatrikulazioaren izapidezta bizkortzea da.

## Bibliografia

- Borrego Bellido, F.; Casero Lambás, J. F. eta Gutiérrez Sarmiento, H. (1974): "Bienes exentos y bienes exceptuados de la desamortización (Análisis de la Jurisprudencia entre 1866 y 1873)", *Actas del III Symposium Historia de la Administración*, I.E.A., Madrid, 35-93.
- Cavallario, D. (1860): *Instituciones de Derecho Canónico. Traducción nuevamente corregida por un profesor de Jurisprudencia de la universidad de esta Corte, y con notas, Ordenadas para ilustrar la doctrina del autor con cánones, leyes é historia de España, por el Doctor D. Jorge Gisbert*, II, Librería de D. Angel Calleja; Casa de los Sres. Calleja y compañía, Madrid; Lima [4. argit.]
- Donézar, J. M. (1975): *La desamortización de Mendizábal en Navarra (1936-1851)*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- Fuestas Loza, A. (1983): "La protección registral de los compradores de bienes eclesiásticos desamortizados", *Anuario de Historia del Derecho Español*, 53, 333-363.
- \_\_\_\_\_, (1986): "La protección, por la Ley de 8 de febrero de 1861, de los compradores de bienes eclesiásticos desamortizados", *Desamortización y Hacienda Pública*, II, Madrid, 653-667.
- \_\_\_\_\_, (1987): "¿Protección registral de bienes eclesiásticos desamortizados?", *RCDI*, 578, 92-105.
- Gilissen, J. (1979): *Introduction historique au Droit*, Bruxelles.
- Golmayo, P. B. (1859): *Instituciones de Derecho Canónico*, II, Imprenta de D.F. Sánchez, Madrid.
- Jimeno Aranguren, R. (2005): *El remedio sobrenatural contra las plagas agrícolas hispánicas. Estudio institucional y social de la cofradía y santuario de San Gregorio Ostiense (Siglos XIII-XIX)*, Ostiako San Gregorioren Kofradia, Sorlada.
- \_\_\_\_\_, (2007): *Terras a suis reperitur semper esse possessas. La Iglesia en Tierra Estella en la Edad Media*, Lamiñarra, Iruñea.
- \_\_\_\_\_, (2009): "Cristianización y tradiciones cultuales en Vasconia", *Bulletin du Centre d'études médiévales d'Auxerre* [En ligne], Hors série nº 2 (2009), mis en ligne le 19 janvier 2009. URL: <http://cem.revues.org/index9742.html>

- Jimeno Jurío, J. M. (1970): *Iranzu*, Navarra. Temas de Cultura Popular, **69**, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea.
- Paredes, F. J. (1986): "Aspectos ideológicos del proyecto desamortizador de Pascual Madoz", *Desamortización y Hacienda Pública*, II, Madrid, 189-198.
- Rueda Hernanz , G. (1976): "Bibliografía sobre el proceso desamortizador en España", J. P. Merinoren *Notas sobre la desamortización en Extremadura liburuaren bigarren eranskina*, Madrid, 107-132.
- \_\_\_\_\_, (1981): "Bibliografía sobre el proceso desamortizador en España", *Agricultura y Sociedad*, **19**, 215-247.
- \_\_\_\_\_, (1986): "Bibliografía sobre el proceso desamortizador en España (Tercera versión)", *Cuadernos de Investigación Histórica*, **9**, 191-220. orr.
- \_\_\_\_\_, (1993): *La desamortización en la Península Ibérica*, Marcial Pons, Madrid.
- Rueda Hernanz, G.; García Colmenares , P. eta Díez Espinosa, J. R. (1986): *La desamortización de Mendizábal y Espartero en España*, Cátedra, Madrid.
- Simón Segura, F. (1973): *La desamortización española en el siglo XIX*, Madrid.
- Tomás y Valiente, F. (1971): *El marco político de la desamortización en España*, Airel, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_, (1974a): "Recientes investigaciones sobre la desamortización: intento de síntesis", *Moneda y Crédito*, **131**, 95-160.
- \_\_\_\_\_, (1974b): "Planteamientos políticos de la legislación desamortizadora", *Revista Crítica del Derecho Inmobiliario*, **131**, 3-91.
- \_\_\_\_\_, (1974c): "Jurisprudencia administrativa sobre bienes sujetivos a desamortización", *Actas del III Symposium de Historia de la Administración*, Madrid, I.E.A., 25-59.
- \_\_\_\_\_, (1974d): "Bienes exentos y bienes exceptuados de la desamortización (Análisis de la Jurisprudencia del Consejo de Estado y del Tribunal Supremo entre 1873 y 1880)", *Actas del III Symposium de Historia de la Administración*, Madrid, I.E.A., 61-91.
- \_\_\_\_\_, (1974e): "Algunos ejemplos de jurisprudencia civil y administrativa en materia de desamortización", *Agricultura, comercio colonial y crecimiento económico en la España contemporánea*, *Actas del I Coloquio de Historia Económica de España*, Bartzelona, 67-89.
- \_\_\_\_\_, (1978): "El proceso de desamortización de la tierra en España", *Agricultura y sociedad*, **7**, 11-33.
- \_\_\_\_\_, (1982): "Desamortización y Hacienda Pública. Reflexiones entre el balance, la crítica y las sugerencias", *Hacienda Pública Española*, **77**, 15-31.
- \_\_\_\_\_, (2003): *Espainiako Zuzenbidearen Historiaren eskuliburua*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

